

***Hitzarmengintza euskararen  
normalizazioan: Debagoieneko  
udalen esperientzia***

**Iñaki Akizu  
Aintzane Lasa  
Elisabete Payros  
2005eko otsaila**

## ***Aurkibidea***

<b>1. Hitzarmengintzaren nondik norakoak.</b>	<b>4</b>
1.1.- Hitzarmen proiektuen helburuak.	
1.2.- Ezaugarriak.	
1.3.- Hitzarmen motak.	
<b>2.- Plangintza urratsez urrats</b>	<b>5</b>
2.1.- Egoera azertu eta konpromiso zehatzak sinatzea.	
2.1.1.- Entitateetan diagnosis egitea: datu bilketa.	
2.1.2.- Lehentasunak finkatzea.	
2.1.3.- Hitzarmen espezifikoak prestatzea.	
2.1.4.- Entitateekin konpromiso zehatzak negoziatzea.	
2.1.5.- Hitzarmen espezifikoak sinatzea.	
2.2.- Plana aplikatu, sustapen lana egin eta emaitzak ebaluatzea.	
2.2.1.- Plangintzaren aplikazioa. Sustapen lana eta zerbitzuak.	
2.2.2.- Jarraipena	
2.2.3.- Ebaluazioa.	
2.2.4.- Fase berri baten proposamena.	
<b>3.- Debagoieneko esperientzia</b>	<b>9</b>
3.1.- Arrasateko esperientzia	
3.1.1.-Hitzarmenaldiak	
3.1.2.- Zerbitzuak	
3.2.- Bergarako esperientzia	
3.2.1.- Hitzarmena erakunde eta entitateekin.	
3.2.2.- Hitzarmena merkataritzan.	
3.3.- Oñatiko esperientzia	
3.3.1.- Hitzarmena	
3.3.2.- Udalak Eskainitako Zerbitzuak.	
3.3.3.- Ondorioak.	
<b>4.- Ondorio nagusiak</b>	<b>13</b>

# **1. Hitzarmengintzaren nondik norakoak.**

Helburu jakin bat lortzeko metodologia sistematizatu bat da. Hitzarmengintzako proiektuak gizarteko hainbat arlo edo sektoretan euskararen erabilera normalizatzeko plangintzak dira.

Hitzarmengintzako proiektuak euskararekiko konpromisoan oinarritutako egitasmoak dira, eta konpromisoak borondatez hartzen dira.

## **1.1.- Hitzarmen proiektuen helburuak.**

Proiektu hauek hizkuntza normalizazioa dute helburu. Hitzarmena ez da helburua, tresna bat baizik. Helburua ez da hitzarmenak sinatzea, hitzarmen hauen bidez euskararen normalizazioa bideratzea baizik.

## **1.2.- Ezaugarriak.**

Hitzarmen egitasmoan parte hartzea, beraz, borondatezkoa da; entitateak euren borondatez autoinplikatzen dira proiektuan, inork horretara behartu gabe.

Hitzarmengintzak lan sistematizatu eta jarraitua eskatzen du. Planifikazioa eskatzen du: lan programatua eta helburuen arabera. Hitzarmenakideei azpimarratu egingo zaie proiektu serioa dela, eta ez dela euskararen aldeko kanpaina solte bat.

Normalean, hitzarmenagintzaren bidez hiru sektore hauek lantzen dira: elkarte eta erakundeak, merkataritza eta enpresa mundua

## **1.3.- Hitzarmen motak.**

- Hitzarmen orokorrak.

Entitateek euskarekiko konpromisoa hartzen duten momentuan sinatzen dira eta bi eratakoak dira:

- ✓ Hitzarmen mailakatuak.

Orokorrean bi edo hiru motatako hitzarmenak eskaintzen zaizkie aukeran sektoreko entitateei. Hitzarmen horien bidez, entitateek euskararekiko konpromiso orokorrak hartzen dituzte, hau da, euskalduntze prozesua abian jartzeko borondatea adierazten dute; hitzarmen mota bakoitzaren arabera konpromiso maila handiagoa edo txikiagoa izan daiteke:

- A hitzarmena, nagusiki euskaraz funtzionatzeko prest dauden entitateei zuzendua.

- B hitzarmena, euskara gaztelania beste edo gehiago erabiltzeko prest dauden entitateei zuzendua.

- C hitzarmena, gaztelaniazko funtzionamendua izanik, kalera begirako jardueretan euskara gaztelaniaren parera ekartzeko prest dauden entitateei zuzendua.

- ✓ Hitzarmen mailakatu gabea.


Hitzarmen bakarra eskaintzen zaie sektoreko entitate guztiei, herriaren egoera soziolinguistikoa dela eta egokia delako horrela jokatzea.

- Hitzarmen espezifikoak edo mikroplangintzak.  
 Diagnostika egin ondoren erakunde bakoitzari bere neurria egindako hitzarmena proposatzen zaie, eta konpromiso eta ekintza zehatzak negoziatu eta sinatu dituzte.

Hainbat kasutan ez da hitzarmen orokorrik sinatzen. Kasu horietan, entitateekin diagnosirako konpromisoa baino ez da sinatzen hasieran eta diagnostika egin ondoren hitzarmen espezifikoak prestatu eta sinatzen dira.

## 2.- Plangintza urratsez urrats.

Hasierako fase batean hainbat aurrean egin behar dira: proiektua prestatu, teknikaria aukeratu, entitateei proiektua aurkeztu, zuzendaritzaren erabakia jaso, proiektua herrian aurkeztu eta hitzarmen orokorrak sinatu. Hauek denak bukatu ondoren zehatzago azaltzen den bigarren fase nagusiarri ekingo zaio. Edozein kasutan ere, epe luzerako lana eskatzen duen proiektu serioa dela azpimarratuko da, eta adieraziko zaie ez dela euskararen aldeko kanpaina bat. (Ikus eskema)



### 2.1.- Egoera aztertu eta konpromiso zehatzak sinatzea.

#### 2.1.1.- Entitateetan diagnostika egitea: datu bilketa.

Behar-beharrezkoa da jakitea Hitzarmena sinatzeko prest agertu diren entitateen hizkuntza egoera zein den. Egoera horren berri jakinda, gai izango gara entitate bakoitzari dagozkion helburu eta lehentasunak ezartzeko eta, era berean, posible izango da ebaluazio egoki bat egitea. Hasierako hizkuntza egoeraren berririk ez badugu, gero ezinezkoa da aldaketarik egon den edo ez jakitea. Datu bilketa egiteko mila inkesta ezberdin sortu daitezke. Aztertu daitezkeen hizkuntza adierazleen kopurua amaigabea da eta mugatzea

beharrezkoa suertatzen da. Adierazle horiek aukeratzerakoan, entitateen hizkuntza egoera era hobereanean adieraziko digutenak aukeratuko ditugu.

### **2.1.2.- Lehentasunak finkatzea.**

Entitateen hizkuntza errealitatearen berri jakin eta gero, lehentasunak finkatzea izango da hurrengo lana.

Hitzarmen proiektuaren helburu orokorra entitateen kanpo eta barne harremanetan euskararen erabilera areagotzea da. Baina, hori lortzeko entitate bakoitzari helburu espezifikoak finkatzen zaizkio, eta, azkenik, helburu espezifiko horiek lortzeko, ekintzak definitzen dira.

Beraz, eginkizunak mailakatzerakoan, interesgarria izan daiteke irizpide hauek kontuan hartzea:

- Orokorretik partikularrera.  
Egokiena, gauza orokorrekin lanean hasia da, eragin biderkatzaile handiagoa izaten baitute.
- Errazenetik zailenera.  
Entitateen ilusioa pizteko, helburu lorgarrietatik hasia oso garantzitsua da (adib.: irudi linguistikoa euskalduntzea).
- Maiztasunaren arabera.  
Erabilera handieneko elementuak euskaratzen hasiko gara.
- Epeak finkatzea.  
Beharrezkoa da eginkizunei epe jakin bat ematea.

Gure lana ahalik eta eraginkorrena izatea lortu behar dugu, eta erabilitako energiari ahalik eta etekinik handiena atera behar diogu. Eta horretarako inportantea da pausoak ondo pentsatuta eta arrazoituta ematea.

### **2.1.3.- Hitzarmen espezifikoak prestatzea.**

Hitzarmen espezifikoak diseinatzerakoan, entitatearen ezaugarriak eta hitzarmena berarenak kontuan hartuko dira:

- Entitatearen ezaugarriak:
  - ✓ Entitatearen organigrama.
  - ✓ Entitatearen ohiko jarduerak.
  - ✓ Entitatearen ekintza puntualak.
  - ✓ Beste entitate batzuekin dituzten harremanak.
  - ✓ Entitatearen hasierako hizkuntza egoera.
- Hitzarmena:
  - ✓ Helburu orokorra.
  - ✓ Helburu espezifikoak.
  - ✓ Normalizatzeko ekintzak.

### **2.1.4.- Entitateekin konpromiso zehatzak negoziatzea.**

Hitzarmen espezifikoak prestatu ondoren, hitzarmen hauek entitateari aurkezteko momentua da. Entitate bakoitzak hitzarmena aurrera eramateko euskara arduraduna izango du, eta hura Hitzarmeneko teknikariarekin elkartuko da eta hainbat bilera bat egingo dituzte, entitate horrek aurrera eraman beharreko neurri zehatzak adosteko. Bilera horietan, gai hauek landuko dira:

- Entitatearen egoeraren berri emango da. Ahalik eta modu sinple eta errazenean entitatearen hizkuntza egoeraren berri emango da. Horretarako egokia izan daiteke grafikoak erabiltzea. Beste aukera bat, entitate bakoitza herriko egoera orokorrarekin konparatzea izan daiteke. Azken batean, bilera horretan garbi utzi behar da entitate hori non kokatzen den, hizkuntzaren egoerari dagokionez.
- Elkarteen kasuan, gerta liteke entitatearen arduradunak bileran erabakirik hartu ezin izatea, eta zuzendaritza batzordean erabaki beharko da.

Bilera horietatik entitate bakoitzarentzat egokitutako hitzarmenak lortu beharko ditugu. Aurrera begira markatuko diren helburu eta urratsak hitzarmenkiderekin batera diseinatzeak berebiziko garrantzia du, hau da, planak malgua izan behar du, Eraldatze prozesu batean, inplikaturik dauden kideen partehartzea garrantzitsua eta ezinbestekoa da. Helburuak lortu ahal izateko, markatutako ekintzen erantzuleak eta epeak zehaztea ere ezinbestekoa da.

#### 2.1.5.- Hitzarmen espezifikoak sinatzea.

Hitzarmenak bakoitzarekin helburu espezifiko eta ekintzak adostu ondoren, hartutako akordioak biltzen dituen hitzarmen espezifikoa idatziko da. Horrela, entitate bakoitzak bere egoera eta jardunari egokitutako hitzarmena izango du. Hitzarmena negoziatu ondoren, hitzarmenaren bi ale sinatuko dira: bata Hitzarmenaren bultzatzaileentzat eta bestea entitate sinatzaileentzat.

## 2.2.- Plana aplikatu, sustapen lana egin eta emaitzak ebaluatzea.

### 2.2.1.- Plangintzaren aplikazioa. Sustapen lana eta zerbitzuak.

Hitzarmeneko konpromisoak banan-banan adostu eta sinatu ondoren, entitate bakoitzarekin adostu dugun mikroplangintza abian jartzea izango da hurrengo lana. Beraz, teknikariak bi eratako lanak egingo ditu fase honetan: alde batetik, hitzarmen espezifikoetako konpromisoak gauzatzen hasteko sustapen lana egin beharko du entitateetan eta, beste alde batetik, hartutako konpromisoak betetzen laguntzeko, zerbitzu teknikoak eskainiko dizkie entitateei. Sustapen ekintza bakoitza planifikatzerakoan hizkuntzaren hiru faktoreak hartu beharko dira kontuan: jakitea, erabilera eta motibazioa. Euskara jakitea, erabilera edo motibazioa suspertzera bideratuta egongo de ekintza bakoitza. Bestalde, sustapen ekintza batzuk entitate guztientzat baliagarriak izango dira (ikastaroak,...), eta, beste batzuetan, aldiz, teknikariak entitate bakoitzarekin propio egin beharko du sustapen lana, lehentasunezko entitateetatik hasita.

Zerbitzuen eskaintzari dagokionez, berriz, zerbitzu-eskaintzak ondo funtzionatu behar du. Horretarako entitateak argi jakin behar du zer nolako zerbitzuak eskainiko zaizkien.

### **2.2.2.- Jarraipena.**

Hitzarmen espezifikoa gauza dinamikoa da, egoeraren aldaketa bilatzen duena. Horregatik, behar-beharrezkoa da entitateei jarraipena egitea. Gainera, euskaldundu nahi dugun entitatean ezaugarri hauekin topo egingo dugu:

- Euskararen aldeko jarrera pasiboa aurkituko dugu entitateetan.
- Entitate bateko kideak euskaldunak izateak edo euskalduntzeak ez du ziurtatzen entitatearen funtzionamendua euskalduna izango denik. Hau da, jakiteak ez du bermatzen erabilera.
- Euskararekiko konpromisoak hartzeak ez du esan nahi bete egingo direnik.

Hori dela-eta entitateei jarraipenik egiten ez bazaie, alfer-alferrekoa izango da hitzarmenak sinatzea, konpromisoen laurdenak ere ez baitira beteko. Gainera, jarraipenaren bitartez lorpenak neurtuko ditugu, eta helburuak pausoz pauso lortzen joateko aukera izango dugu. Beraz, teknikariaren funtzio inportanteenetako bat izango da entitateei jarraipena egitea.

Bestalde, jarraipen lana eta sustapen lana elkarri lotuta daude, eta sarritan nahastu egiten dira biak: entitate batera jarraipena egitera joan gaitzke, eta berehala ikus dezakegu konpromisoak ez dituztela bete. Hortaz, automatikoki sustapen lana egiten hasiko gara berehala.

Entitateetara egin beharreko jarraipen bisita eta sustapen bileren maiztasuna entitate bakoitzaren lehentasun mailaren araberakoa eta laguntza premiaren araberakoa izango da entitate batzuetara urtean behin, eta beste batzuetara astero).

Jarraipen lanean arlo edo atal hauek sartzen dira oro har: ahozko erabilera eta idatzizko erabilera; entitateen barne funtzionamenduan eta kanpo funtzionamenduan.

### **2.2.3.- Ebaluazioa.**

Hitzarmen hauen ebaluazioa egitea ezinbestekoa izango zaigu lortu dugun egoera berria eta guk alde zuzenetik lortu nahi genuenaren artean zein alde dagoen jakiteko.

Horregatik, urtean behin jarraipen txostena egingo da, egin behar zituen urratsen edo eginkizunen ebaluazioa egiteko. Jarraipen txosten honetan puntu hauek jasoko dira:

- Hizkuntza normalizazioaren emaitzak. Proiektuak eman dituen emaitzak ebaluatuko dira. Emaitza hauek bi ikuspegitatik baloratuko dira:
  - ✓ Batetik, kantitatezko balorazioa egingo da, hau da, euskarazko eta gaztelerazko komunikazioak konparatuko dira.
  - ✓ Bestetik balorazio kualitatiboa ere egingo da. Komunikazioaren kalitatea edo entitateek egiten duten esfortzua ere baloratuko da.
- Inplikazioaren ebaluazioa. Hitzarmen-kideen inplikazioa nolakoa izan den ere ebaluatuko da.
- Ekintzen ebaluazioa. Ekintzak aurrera eramaterakoan asmatu dugun edo ez ikusiko dugu, eta hiru aspektu kontuan hartu:



- ✓ Helburuekiko egokitasuna.
- ✓ Nahikotasun maila, hau da, egin diren ekintzak nahikoa izan diren.
- ✓ Prozedurak edo erabilitako bideak egokiak izan diren.

#### **2.2.4.- Fase berri baten proposamena.**

Aurrerapausoak egindakoan, entitateen lana txalotu eta zoriondu egin behar da. Motibazioa landu egin behar da.

Urteko jarraipen txosten hori izango de hurrengo fase baterako oinarria edo abiapuntua. Hasiera horretan, helburuak eta lehentasunak berriro formulatuko dira eta prozesuaren 2.3.2 puntura (lehentasunak finkatzea) bueltako gara.

Pazientzia handia behar da: gaurko lanak emango ditu fruituak bihar edo etzi. Konpromisoak onartu arren, askotan ez dira berez beteko, entitateak aldaketa kultural batean sartuta daudelako eta aldaketek denbora eskatzen dutelako.

### ***3.- Debagoieneko esperientzia***

#### **3.1.- Arrasateko esperientzia.**

##### **3.1.1.-Hitzarmenaldiak**

1990eko martxoaren 28an, Arrasateko 38 entitatek, euskararen erabilera sustatzeko hitzarmena sinatu zutenetik hamalau urte pasatxo dira. Urte hauetan hitzarmenkideen kopurua gehituz joan da , eta, gaur egun, 120 hitzarmenkide ditugu. Hitzarmenkide hauek sektore askotarikoak dira: merkatariak, zerbitzu enpresak, enpresa industrialak, eskolak, akademiak, kultur elkarteak, aurrezki kutzak, alderdi politikoak, sindikatuak etab. Ibilbide luze honetan, hiru hitzarmenaldi bereiz ditzakegu:

- Lehenengo hitzarmenaldia (1990 1993): hitzarmena abiatzea.  
Lehen hitzarmenaldian, hitzarmen bakarra sinatu zuten hitzarmenkide guztiek. Entitateen arteko idatzizko harremanen jarraipenari eta entitateei hizkuntza aholkularitza eskaintzeari eman zitzaion lehentasuna, eta hitzarmen bakarra sinatu zuten.
- Bigarren hitzarmenaldia (1993 1997): hitzarmena sakontzea.  
Bigarren hitzarmenaldi honetan, Hitzarmena idatzizko harremanen mundura mugatu ezin zela ikusirik, hitzarmenkideen arteko harremanak euskaraz izateko konpromisoaz gain, entitate bakoitzaren barne nahiz kanpo harremanetan euskararen erabilera areagotzeko helburua hartu zen, eta euskalgintzan ari diren erakundeei lehentasuna ematea erabaki zen. Entitate batzuek hainbat agiri (lan kontratuak, kontabilitatea, nomina...) euskaraz egitea lortu zen.
- Hirugarren hitzarmenaldia: erabilera planen aldia, 1997an hasi eta amaitu ez dena.  
Hirugarren hitzarmenaldian, erakunde bakoitzari egokitutako normalizazio planak egiten ditugu, haien egoera, beharrak eta ahalmenak kontuan hartuta. Izan ere, hitzarmenkideen kopurua handia denez, badira kontuan hartu beharreko hainbat kontu:

- ✓ Hitzarmenkiddeen abiapuntua oso desberdina da, eta kasu askotan, oztopo izaten da entitate guztiak dinamizatzeko. Elkarren artean oso entitate ezberdinak eta maila ezberdinean daudenak ditugu.
- ✓ Hitzarmena sinatu zenean, helburu bera jarri zen denentzat, oso orokorra gainera. Lehen pausua emateko oso baliagarria gertatu zen arren, gaur egun lan egiterakoan ez da gura bezain eraginkorra gertatzen. Zaku berean daude entitate guztiak, baina bakoitzaren egoera, helburuak, beharrak eta jarrera ez dira berdinak., entitate bakoitzaren egoera aztertu, eta eurekin batera diseinatu beharra dago aurrera begira eman beharreko urratsak.

Hirugarren hitzarmenaldiko normalizazio plan hauen abiapuntua erakundearen hizkuntza egoeraren azterketa da. Hizkuntza egoera horretatik abiatuz erakundeak berak markatzen du lan erritmoa eta noraino iritsi nahi duen. Normalizazio planak, beraz, erakundearen beharretara egokitzuz lan egitea ahalbideratzen duen kudeaketa tresna da.

### **3.1.2.- Zerbitzuak**

Eskaintzen diren zerbitzuei dagokienez, hauexek dira Hizkuntza aholkularitza eskaintzen direnak:

- Aholkularitza:  
Hizkuntza eta terminologia kontsultak, testu laburren itzulpena, zuzenketa, argitaratzen den euskarazko material berriari buruzko informazio etengabea, euskararen erabilera sustatzeko dirulaguntzak (errotuluak, irudi korporatiboa, web orriak, programa informatikoak...)
- Formazioa:  
Euskara ikasteko baliabide eta aukerei buruzko aholkularitza: euskara klaseei buruzko informazioa, interes eta beharren arabera talde desberdinak osatzeko dauden aukerak, klaseez gain dauden aukerei buruzko informazioa (autoikasketa ordenagailuz...).
- Hizkuntza plangintza:  
Neurrira egindako hizkuntza plangintza. Entitate bakoitzaren behar eta helburuetara egokitzen den normalizazio plana egiteko aukera.

Hizkuntza aholkularitzari buruz esan asko kostata baina finkatzen eta zabaltzen joan den zerbitzua dela. Hasieran batez ere oinarrizko itzulpenak egiten genituen baina gero eta zuzenketa gehiago egiten dugu.

Bestalde, hasierako planteamentuarekin alderatuz gero (terminologia eta itzulpen/zuzenketa zerbitzuaren eskaintza) askoz ere aholkularitza integralagoa eskaintzera pasatu gara:

- ✓ Hasierako zerbitzuez gain euskararen erabilera sustatzeko dirulaguntzak eskaintzen ditugu hiru arlotan: errotulazioa eta irudi korporatiboa alde batetik, programa informatikoak euskaraz erostekoa dirulaguntzak bestetik, eta azkenik web orriak euskaratzekoak.
- ✓ Atera dugun zerbitzuen katalogoaren bidez gure zerbitzuak hitzarmenkideei

ezezik beste edozein erakunderi ere eskaintzen dizkiogu. Horretarako udaleko irekitzeko lizentzien kontrola egiten dugu, eta ahal dela, establezimenduekin ireki aurretik jartzen gara harremanetan.

## 3.2.- Bergarako esperientzia.

### 3.2.1.- Hitzarmena erakunde eta entitateekin.

Bergaran 1991ko abenduan haur eta gazte munduarekin lotura zuten 49 erakunde eta entitatek sinatu zuten euskararen erabilera bultzatzeko hitzarmena. Ikastetxeak, akademiak kultur eta kirol elkarteak eta haur eta gazteekin zerikusia zuten beste hainbat erakunde eta entitate (katekesia, alderdi politikoak...) izan ziren hitzarmena sinatu zutenak.

Hasiera batean 3 urterako sinatu zuten hitzarmena eta epea hau bukatzean beste 3 urterako berritu zuten hitzarmena 1991n sinatutakoek eta beste 22 erakunde gehiagok. Bigarren. sinatze-ekitaldi honetan hitzarmenean ez zeuden herriko kirol eta kultura-elkarte guztiei luzatu zitzaien proposamena gazteekin harremana izan edo ez izan.

Hitzarmen orokor bakarra, mailakatu gabea eskaini zitzaien entitate guztiei, mailakatuak eskainiz gero, batzuk ahal izango luketena baino baxuagoa aukeratuko zutelakoan geundelako. Hitzarmen bakarra eskaini arren laster hasi ginen erakunde bakoitzaren premiei eta ahalmenei egokitutako hitzarmen espezifikoen bidez lanean. Horrela erakunde batzuk nahiko azkar iritsi ziren hitzarmena bere osotasunean edota ahal zuten tokiraino betetzera eta beste batzuk berriz, gora beheraz betetako sei urteko ibilbidearen beharra izan zuten horretarako.

Sei urte horietako esperientziak erakutsi zigun alde batetik hitzarmena eten gabe entitate desberdinei egokitu beharreko tresna dela eta hasieran sinatutako hitzarmen orokorrak lanerako markoa baino ez zigula eskaintzen; honez gain, batzutan ezinezkoa izan zen hitzarmen orokorrean jasotako hainbat puntu betetzea erakundetik kanpo zeuden zenbait arrazoiengatik. Bestalde ongi ikasi genuen baita borondatean oinarrituta egotean, zenbait kasutan entitateetako pertsonak aldatzeaz bat, atzera egiteko arriskua zegoela eta lehendik egindako bidea berriz egin beharra dagoela.

1998an bukatutzat eman genuen entitate eta erakundeekin sinatutako hitzarmena momentu horretan dagoeneko erakunde bakoitzarekin iritsi gintezkeen tokiraino iritsita geundelako. Hala ere, gaur egun, eta EBPNren barruan, berriz, berreskuratu nahi dugun gaia da, 98tik hona ez dugulako praktikan harremanik izan hitzarmena sinatu zuten hainbat erakunderekin eta ez dakigulako nolakoa den gaur eguneko egoera. Berriz ere, zalantzarik gabe hitzarmenaren bidea jarriko da martxan premia duten erakundeekin.

### 3.2.2.- Hitzarmena merkataritzan.

1998tik gaur egunera arte merkatariekin ari gara lanean. Gaur egun 153 establezimendu ari dira gurekin lanean.

Lanerako abiapuntua hizkuntza-paisaia euskalduntzea izan zenez, euskara zerbitzuko itzulpen eta zuzenketa-zerbitzu orokorra eskaintzeaz gain, hitzarmenean dauden

establezimendu guztiei eskaintzen zaie behar dituzten kartelak eta idatziak euskaraz ere jasotzeko aukera.

Honez gain merkataria guztiei, oro har, dirulaguntzak eskaintzen zaizkie errotulazioa, irudi korporatiboa eta web-guneak euskalduntzeko. Honek aukera ezin hobea eskaintzen digu aurre-hartze politika martxan jarri eta harremanak izateko establezimendu berrien jabeekin hauek denda ireki baino lehenago.

Aipatu behar hitzarmeneko abiapuntua hizkuntza-paisaia izan bazen ere, harremanak sendotu ahala aukeratutako hainbat establezimendurekin lan sakonagoa egin dugula eta besteak beste eurei egokitutako normalizazio-planak jarri ditugula martxan edota hiztegi sektorialak eskaini dizkiegula euskara hutsez lan egiteko gai direnei.

### 3.3.- Oñatiko esperientzia.

#### **3.3.1.- Hitzarmena**

Oñatin, 1.994 urtean sinatu zen "Euskaraz Baietz!" hitzarmena. Mota guztietako 137 erakunde izan ziren hitzarmena sinatu zutenak sail hauetan sailkatuta: alderdi politiko eta sindikatuak, banketxe eta aurrezki kutxak, gizarte zerbitzuak, ikastetxe, eskola eta akademiak, herriko berri emaileak, jai batzordeak, kirol elkarteak, kultur elkarteak, merkataritza establezimenduak, osasun arloko sendagile eta erizainak, ostalaritza, taxilariak, udala eta bere menpeko zerbitzuak. Oñatiko bizitza sozialeko agente gehientsuenak bildu nahi izan ziren hitzarmenaren inguruan.

Aipatutako sail bakoitzak bere hizkuntza konpromiso propioak zituen, modu orokor batean formulatuta, eta konpromiso horiek hartzen ziren oinarri moduan gero sektoreka banan-banan konpromisoen betetze maila lantzerako orduan.

Sinatzaileen artean jarrera aldetik alde nabarmenak egon ziren, batzuk sinatutakoa betetzeko motibazio eta interes handia agertu zuten, beste batzuk aldiz hitzarmena sinatu bai baina ez zuten aurrerapauso nabarmenik eman.

Sinatzaileekiko lana aldian-aldian sektore desberdinetako sinatzaileekin egindako jarraipen bileren bitartez gauzatzen zen, bertan egoera aztertu eta helburuak finkatzen zirelarik. Hitzarmenaren bidez sinatzaile bakoitzak borondatez hartzen zuen bere gain euskararen ardura, hizkuntza konpromiso batzuk beteko zituelarik.

#### **3.3.2.- Udalak Eskainitako Zerbitzuak.**

Udala sinatzaileekin konprometitu zen hainbat zerbitzu doan eskaintzera, euskararen erabileran eta hizkuntza autonomian eman beharreko urratsak laguntzeko helburuarekin. Sinatzaileen esku jarri zituen, itzulpen, aholkularitza eta zuzenketa zerbitzuak, errotulazioa eta irudi korporatiboa euskalduntzeko dirulaguntzekin batera. Horrez gain euskalduntze eta alfabetatze ikastaroak ere eskaintzen dira, eta azken urtean eskaintza honi web orriak euskalduntzeko dirulaguntzak arautu ditu.

Oñatin arazo nagusienetakoa, jendea euskalduna izan arren kasu askotan alfabetatu gabea izatea zen, honek entitateen idatzizko hizkuntza jarduerak euskalduntzeko zekartzan oztopoekin. Gure lana gehienbat horrelako egoeretan zeudenak motibatu eta beldurrak uxatzera gonbidatzea zen, lotsarik ez izateko, garrantzitsuena ez dela "h" edo "s" behar den lekuan jartzea, hori guk zuzenduko dugula, garrantzitsua euskaraz egitea dela, nahiz eta gaizki egin, egitean dagoela erronka.

### **3.3.3.- Ondorioak.**

- Hitzarmenaren izaera borondatezkoa dela ikusita, gehienetan sinatzaileek emandako aurrerapausoak, izandako bileretan agertu duten borondatearen arabera izan dela sarritan.
- Arrakastarako beste faktore garrantzitsu bat interlokutore egokia hautatzea zen. Beti saiatu izan gara interlokutore euskaltzalea eta bere talde edo elkartearen itzala duena lortzen, emaitzak horren arabera oso desberdinak izan daitezkeelako.
- Horrekin batera egituretako postu klabeetan pertsona euskaldunak ziurtatuta izateak duen garrantzia ere nabarmentzekoa da, denbora luzeko lanen ondorioz lortutako aurrerapausoak bat-batean hutsean gelditu daitezkeelako, hitzarmengileen egituretan gertatzen diren pertsona aldaketa dantza horretan.

Gaur egun, hitzarmengileekiko harremana mantentzen dugu, modu ez horren jarraituan, baina aldi behin sinatzaile arlo bakoitzarekin harremanak ditugu eta hobekuntzarako planteamendu eta material zehatzak eskaintzen dizkiegu, inprimakiak, ereduak, programa informatikoak...

## **4.- Ondorio nagusiak**

- Borondatea: borondatean oinarritzen den lana da, erakundeak berak erabakitzen du noraino iristeko prest dagoen. Gauza bat da guk nahi duguna eta bestea errealitatea.
- Denbora: normalizazio planen kudeaketan oso kontuan hartzeko faktorea da. Izan ere, hizkuntza ohituretan oinarritutako aldatetako prozesuak ez dira egun batetik bestera gertatzen. Oro har, erakundeetan euskararen aldeko jarrera pasiboa aurkituko dugu, eta aldeko borondate horretatik konpromisoak betetzera pasatzea kosta egiten da: batzuetan esaten dena eta egiten dena oso ezberdinak dira, aldatzeko motibazioa eta aldatzeko gaitasuna ez dira berdinak.
- Konfidantza: konfidantzazko harremanetan oinarritzen da hitzarmenaren kudeaketa, eta aurreko faktoreekin oso lotuta dago, eta baita eskaintzen ditugun zerbitzuen erabilerekin ere (hizkuntza aholkularitza: zuzenketak, terminologia kontsultak, itzulpenak..)
- Katalogoa: eskaintzen ditugun zerbitzuak ez dira ikusten eta askotan ulertzeko ere ez dira oso kontzeptu errazak (normalizazioa, erabilera areagotzea...). Katalogo batean zerbitzuak txukun antolatuta edukitzeak asko laguntzen du eta seriotasuna ematen dio lanari.
- EBPNri begira: kudeaketa tresna baliagarria iruditzen zaigu, nahiz eta hitzarmen orokorra sinatzearen gaia alde batera utzi eta bakoitzari egokitutako hitzarmen espezifikoak edo normalizazio planak diren abian jartzen direnak hasiera hasieratik.

Materiala.

Lotería nacional

**Larunbatean dezimoak**

*Este sábado el décimo*

**6€**

**Beherapenetan  
ezingo da ezer itzuli**

*En rebajas, no se admiten  
devoluciones*

**ABUZTUA**

*Agosto*

**4tik 10era bitartean goizetan zabalik.**

**11tik 31ra bitartean oporreatatik itxita.**

*Del 4 al 10 abierto por las mañanas.*

*Del 11 al 31 cerrado por vacaciones.*

Arane  
baserriko  
**barazkiak**



Verduras del caserío Arane

**OKARANA**  
CIRUELA

**Gorria**

Roja

